

BALIO PROPOSAMENA

Bezeroei ematen dizkiegun balioak denbora aurreztea, edozein pertsonarentzat egokitua egotea eta teknologia berriaren erabilera eskaintzea dira. Lehen aipatu dugun bezala, denbora aurreztu ez ezik, aholkuak ematen dizkio bezeroari. Beraz, arropa erraztasunez aukeratzea baliatzen dio.

Beste armairu batzuekin alderatuz, proCloset-ak ez dute bakarrik arropa gordetzearen funtzioa betetzen, baizik eta lehen aipatutako ezaugarriak eskaintzen eta funtzioak betetzen dituzte. Gainera, bezeroaren gustukoa izatea ahalbidetzen dugu, pertsonalizatzeko aukera baitago. Pertsonalizazioari dagokionez, gure enpresak bezeroek eskatzen dizkiguten neurriak ekoiztuko dutugu.

Eskaintzen dugun guztia kontuan hartuta, prezioa familia gehienek diru-sarreretara egokituta dago, ezagutzen dugun beste edozein armairuen prezioekin lehia gogorra eginez. Gure produktuaren balioa kuantitatiboa (prezioa lehiakorra duelako) zein kualitatiboa (kontzeptu berriztagarri bat delako) dela esan dezakegu.